

Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek EAEko hezkuntza publikoko irakasleen eta sukalde eta garbiketako kolektiboetan greba dinamikarekin aurrera egingo dute

Joan den abenduaren 16an LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek iragarritako greba-zikloak Hezkuntza Saila hitzarmen berrietarako proposamenak mahai gainean jartzera behartu du. Hala ere, hitzarmen horiek aldarrikatutako edukietatik urrun daudela ziurtatu dute sindikatuek, bai sukalde eta garbiketako kolektiboarenak, bai irakasleenak ere. Beraz, kalitatezko hezkuntzaren bidean Hezkuntza Sailak lan baldintzak hobetu, sare publikoa erdigunean jarri, indartu eta inbertsio publikoa handitu dezan eskatzeko, urtarrila eta otsailean zehar egindako 4 greba egunek eta mobilizazio arrakastatsuek segida izango dute **beste 5 greba egunekin, martxoaren 25, 26 eta 27an eta apirilaren 1 eta 2an.**

Indarrean dagoen sukalde eta garbitzaileen lan hitzarmena 2009koa eta irakasleena 2010ekoa izanik, urtarrileko eta otsaileko mobilizazioetan langileek argi eta garbi adierazi zioten Hezkuntza Sailari **hitzarmen horiek orain eta hemen negoziatzeko beharra**, benetako edukiak mahai gainean jarriz. Sailak komunikabideen aurrean negoziatzeko atea irekita duela esan du, hitzarmen berria negoziatzeko mahaietan jarrera itxia duen bitartean, negoziazioa etengabe luzatzen duenean edo gatazka desitxuratzen saiatzen denean.

Badira sukalde eta garbitzaile eta irakasleen **aldarrikapenetan bat egiten duten puntuak**: geroz eta handiagoak diren lan-zamak arintzeko neurri zehatzak adostea, erretiroa hartzeko baldintzak hobetzea eta plantillen gazteberritze plana garatzea, galdutako erosahalmena berreskuratzea eta jaiotza tasaren jaitsierak aprobetxatuz aldebakarrez erabakitzen ari diren ikastetxe publikoen fusio eta itxieren aurrean enplegu publikoa bermatu eta lanpostuak egonkortzea.

Era berean, Hezkuntza publikoko sistema osoa euskaldunduko duen hezkuntza politikak abiaraztea, langileon lan-osasuna zaindu eta kalitatezko berdintasun eta hezkidetzaren plan egonkorrak garatu ahal izateko baliabideak jartzea eta baita azken urteetan inposatutako atzerapausoak kentzea ere.

Esan moduan, adierazitako aldarrikapenak lortzeko **egiazko negoziazioa** gauzatzea dute helburu eta argi dute langileon mobilizazioekin batera Hezkuntza publikoa erdigunean jartzea eta lan baldintzak hobetzea lortuko dutela. Beraz, martxoaren 25, 26 eta 27an eta apirilaren 1 eta 2an grebara deitu dituzte Hezkuntza publikoko irakasle zein sukalde eta garbiketako kolektiboak.


Denok grebara! Denok kalera!

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

Los sindicatos LAB, STEILAS, ELA y CCOO avanzarán en la dinámica de huelga del profesorado y los colectivos de cocina y limpieza de la educación pública de la CAV

El ciclo de huelgas anunciado el pasado 16 de diciembre por los sindicatos LAB, STEILAS, ELA y CCOO ha obligado al Departamento de Educación a poner sobre la mesa propuestas para los nuevos convenios. Sin embargo, los sindicatos aseguran que estos convenios están lejos de los contenidos reivindicados, tanto en el colectivo de cocina y limpieza como en el del profesorado. Por lo tanto, a las 4 exitosas jornadas de huelga y movilizaciones llevadas a cabo durante los meses de enero y febrero para exigir que el Departamento de Educación mejore las condiciones laborales, ponga la red pública en el centro y refuerce la inversión pública en aras de mejorar la calidad de la educación, les sucederán **otras 5 jornadas de huelga, los días 25, 26 y 27 de marzo y 1 y 2 de abril.**

El convenio de cocina y limpieza es del 2009 y el del profesorado del 2010. Siendo esto así, en las movilizaciones de enero y febrero los trabajadores y las trabajadoras trasladaron claramente al Departamento de Educación la necesidad de **negociar estos convenios aquí y ahora**, poniendo sobre la mesa contenidos reales. El Departamento ha afirmado estar abierto a la negociación ante los medios de comunicación, mientras mantiene una posición cerrada en las mesas de negociación, prolonga constantemente la negociación y trata de deslegitimar el conflicto.

Hay **reivindicaciones coincidentes** en los colectivos de cocina y limpieza y profesorado: acordar medidas concretas para aliviar las crecientes cargas laborales, mejorar las condiciones de jubilación y desarrollar el plan de rejuvenecimiento de las plantillas, recuperar el poder adquisitivo perdido y garantizar el empleo público y estabilizar los puestos de trabajo ante las fusiones y cierres de centros públicos que se están decidiendo unilateralmente aprovechando las bajadas de la natalidad.

Asimismo, poner en marcha políticas educativas que euskaldunicen todo el sistema educativo público, poner los medios para el cuidado de la salud laboral del personal y desarrollar planes estables y de calidad de igualdad y coeducación, así como eliminar los retrocesos impuestos en los últimos años.

El objetivo de éstas movilizaciones es impulsar una **negociación real** para conseguir estas reivindicaciones. Los sindicatos tienen claro que con las movilizaciones conseguirán poner la red pública en el centro y mejorar las condiciones laborales. Por lo tanto, el profesorado y el personal de cocina y limpieza están llamados a la huelga los días 25, 26 y 27 de marzo y 1 y 2 de abril.

¡A la huelga! ¡A la calle!

